Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1901

AGINDUA, 2009ko otsailaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Zerbikas Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Bilboko (Bizkaia) Zerbikas Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Fundación Vivir sin Drogas, Asociación Edex Kolektiboa Centro de Recursos Comunitarios eta Federación de Reinserción Social Sartu direlakoek Zerbikas Fundazioa eratu dute, José Javier Lobato Gonzálezek eta María de la Concepción Clavero Molinak, 2008ko uztailaren 9an emandako eraketa-eskritura publikoaren bitartez; aipatutakoek euren izenean eta Fundación Vivir sin Drogas, Asociación Edex Kolektiboa Centro de Recursos Comunitarios eta Federación de Reinserción Social Sartu direlakoen izenan jardun zuten. Bilboko Carmen Velasco Ramírez notarioaren aurrean eman zen aipatu eskritura, 846. protokolo-zenbakiarekin.

2.– Zerbikas Fundazioa delakoaren helburua estatutuen 6. artikuluan dago jasota:

Fundazioaren helburuak, lehentasunik ezarri gabe, honakoak dira:

1) Ikaskuntza eta elkartasunezko zerbitzuko ekimenak sustatzea, eredu pedagogiko hori zabalduaz, eta horretan oinarritutako proiektuak diseinatu, burutu eta ebaluatzea, betiere proiektuotan komunitateak oro har eta, bereziki, eskola-adineko umeek, nerabeek eta gazteek parte hartzen badute hezkuntzako edozein etapa edo formatutan; halaber, aisialdiko hezkuntza-baliabideetan parte hartzen dutenek eta gizarte-jarduerak garazten dituzten antolakundeek.

2) Komunitatearen eta pertsonen ahalik eta giza izaera handiena sustatzen duten ekimen eta zerbitzuak garatu eta bultzatzea, betiere ondoko arloetako ekintzak sustatuaz: laguntzak, laguntza sozialak, hezkuntzakoak, sozio-kulturalak, sozio-sanitarioak, eta, oro har, harreman sozialak eta gizabidezkoak sustatu eta «gizarte ongizatea» hobetzera bideratutakoak, betiere ikuspuntu humanista, demokratiko eta elkartasunezkotik.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1901

ORDEN de 27 de febrero de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Zerbikas Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Zerbikas Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por la Fundación Vivir sin Drogas, la Asociación Edex Kolektiboa Centro de Recursos Comunitarios y la Federación de Reinserción Social Sartu se ha constituido la Fundación denominada Zerbikas Fundazioa, mediante Escritura pública de constitución otorgada el 9 de julio de 2008 por D. José Javier Lobato González y Dña. María de la Concepción Clavero Molina, en su propio nombre y derecho, y el primero además en nombre y representación de la Fundación Vivir sin Drogas, la Asociación Edex Kolektiboa Centro de Recursos Comunitarios y la Federación de Reinserción Social Sartu, ante la Notaria de Bilbao, Dña. Carmen Velasco Ramírez, número 846 de su protocolo.

2.– El fin fundacional de la denominada Zerbikas Fundazioa, viene establecido en el artículo 6 de su norma estatutaria:

Los fines de la Fundación, sin que su orden indique prioridad, son los siguientes:

1) Impulsar el desarrollo de iniciativas de aprendizaje y Servicio Solidario, propiciando la difusión de este modelo pedagógico, y el diseño, ejecución y evaluación de proyectos basados en el mismo, en los que participen la comunidad en general y, de manera protagónica, niños y niñas, adolescentes y jóvenes en edad escolar en cualquier etapa y formato educativos, participantes en recursos de educación en el tiempo libre, así como organizaciones que desarrollan actuaciones sociales de diversa naturaleza.

2) Promover y desarrollar todo tipo de iniciativas y servicios que contribuyan a enriquecer la dimensión social de las personas y de la comunidad en su más amplia consideración, fomentando todo género de acciones en los ámbitos asistenciales, sociales, formativos, socio-culturales, socio-sanitarios, y, en general, cuantos favorezcan las relaciones humanas y sociales y constituyan fórmulas de mejora de lo que se ha convenido en denominar «bienestar social» desde su concepción más humanista, democrática y solidaria.

3) Oro har biztanleen artean eta, bereziki, ume, nerabe eta gazteen artean aztura eta bizimodu zibiko eta osasungarriak sustatzea, betiere ondokoen arloetako proiektuak prestatu eta garatuaz: kultura artekotasuna, osasunerako hezkuntza, hiritartasuna, haurren eskubideak sustatzea, ingurumenaren iraunkortasuna, justizia, ekitatea, bakea eta elkartasuna; eta bazterketa sozialari dagokionez, era guztietako ekintzak prebentzioan, laguntzan eta gizarteraztean.

4) Etorkien kolektiboei laguntzeko, txirotutako herrialdeetarako garapen-lankidetza burutzeko eta izaera sozialeko programak martxan jartzea. Eta, halaber, pertsona eta komunitateen integrazio osoa faboratzeko eskuartze eta gizarteratze ekimenak, beti ere maila eta era guztietako bazterketak kentzea eta berdintasuna sustatuaz.

5) Ondoko arloetako ekimenak bultzatu eta garatzea: ikerketa soziala agente sozio-komunitarioak formatu eta sentsibilizatzea, etorkin, andre, adin txikiko eta helduen kolektiboak laguntzea eta gizarte-laneko boluntariotza sustatzea, eta oro har, Gizartean ahul eta desabantaila handiko egoeran direnak laguntzea, horren zergatia edozein delarik ere.

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 4. artikuluan jartzen denez, hau da: Indautxuk alea 9, 9, Bilbao, 48011 PK.

4.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1. artikuluaren arabera, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 12. artikuluan jartzen duen moduan.

3) Fomentar la creación de hábitos y actitudes de vida cívicos y saludables entre la población en general y los niños y niñas, adolescentes y jóvenes en particular, elaborando y desarrollando proyectos de interculturalidad, educación para la salud, la ciudadanía, la promoción de los derechos de la infancia, la sostenibilidad ambiental, la justicia, la equidad, la paz y la solidaridad, y acciones de toda índole en los ámbitos de la prevención, asistencia y reinserción de cualquier causa de exclusión social.

4) Poner en marcha todo tipo de programas, de carácter social, de cooperación para el desarrollo de los países empobrecidos, de atención a los colectivos de inmigrantes, así como iniciativas de inserción e intervención comunitaria que favorezcan la plena integración social de las personas y las comunidades, promoviendo la igualdad y la eliminación de las discriminaciones en cualquier grado y género.

5) Impulsar y desarrollar iniciativas de investigación social, de sensibilización y formación de agentes socio-comunitarios, de fomento del voluntariado social y de atención a colectivos de personas mayores, menores, mujeres, población inmigrante y, en general, a aquellos sectores en situación de vulnerabilidad y desventaja social, sea cual sea el origen de ésta.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 4 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en la calle Indautxu número 9 de la ciudad de Bilbao, CP 48011.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran jartzen duenez, hauek izango dira:

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

		Indarraldia / *Vigencia*
Lehendakaria: / *Presidente:*	Rafael Mendia Gallardo	2013-07-09
Lehenengo lehendakariordea: /*Vicepresidenta primera:*	Aitziber Mugarra Elorriaga	2013-07-09
Bigarren lehendakariordea: / *Vicepresidente segundo:*	Javier Lobato González	2013-07-09
Idazkaria/diruzaina: / *Secretario/Tesorero:*	Miguel Ángel Ortiz de Anda	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	María Asunción Olano Larrabaster	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Roberto Flores Fernández	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	María Concepción Clavero Molina	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Jesús Antonio Pérez-Arrospide García	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Roser Batlle i Suñer	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Juan Carlos Melero Ibánez	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Javier Ruiz Fernández	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	María Gutiérrez Jiménez	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	Alfonso López Martínez	2013-07-09
Bokala: / *Vocal:*	José Ignacio Larrauri Gutiérrez	2013-07-09

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-239 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) Zerbikas Fundazioa delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 27a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-239, de la constitución de la denominada Zerbikas Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.